

2/2004 LEGEGINTZAZKO ERREGE DEKRETUA, martxoaren 5koa, Toki Ogasunen Lege Arautzaileari buruzko Testu Bategina onetsi duena

(EAO, 2004. urteko martxoaren 9koa)

104. artikulua. Izaera eta zerga-egitatea. Zergapetik kanpokoak.

1. Hiri-Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko tributua da; tributu horrek kargatzen du halako lurretan gertatutako ondare-gehikuntza, baldin eta gehikuntza hori agerian jarri bada, lurren gaineko jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik, edo aipatu lurren gaineko gozatzeko eskubide errealetatik edozein, jabaria mugatzen duten horietatik bat, eratu edo eskualdatzeagatik.

2. Ondare-gehikuntza ez dago zerga honen mende, baldin eta gehikuntza hori gertatzen bazaie Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landa-lur direnei. Horren ondorioz, ondare-gehikuntza zergapean dago, baldin eta gehikuntza hori gertatzen bazaie Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hiri-lur direnei, eta ez da kontuan hartuko lurrok Katastroan edo haren erroldan halakotzat jasota dauden ala ez. Zerga honen ondorioetarako, ondare-gehikuntza zerga honen mende egongo da, orobat, gehikuntza hori gertatzen zaienean ondasun higiezinetan barruratutako lurrei, baldin eta lur horiek ezaugarri bereziak badituzte, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

3. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunen eta eskubideen ekarpenak egiten badizkiete, edo ezkontideen mesederako adjudikazioak egiten badira, halako ekarpenen ordainean, edo ezkontideei eskualdaketa egiten bazaizkie, haien hartzeko erkideen ordainean, horiek guztiak ez dira zergapean egongo.

Era berean, ezkontzaren deuseztasunari, banantzeari edo dibortzioari buruzko epaiak betetzearen ondorioz, ezkontideek elkarri edo euren seme-alabei ondasun higiezinak eskualdatzen badizkiete, hori ez da zergaren mende egongo, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein izanik ere.